



Esker ona

1 Begiratu Emoziotegiko 92-93. orrialdeetako irudiari, eta erantzun galderei.

● Nola uste duzu sentitzen direla pertsonaiak? Zergatik?


● Badute esker ona sentitzeko arrazoirik? Zein?

2 Zer uste duzu ari zaizkiola elkarri esaten bi untxitxoak? Asmatu haien arteko elkarrizketa bat.



3 Idatzi zer hitz eta adierazpen erabiltzen dituzun **eskerrak** emateko.

4 Osatu gurutzegrama **esker onaren** familiako hitzekin.



- 1** Eskerrak eman.
- 2** Eskertzekoa dena.
- 3** Esker onekoa, eskerduna.
- 4** Eskertzeko zaila dena.

5

Erantzun Emoziotegiari buruzko galdera hauei.

- Zer ikasi duzu Emoziotegiarekin? Erabilgarria iruditzen zaizu? Zergatik?

- Nola lortu zenuen? (Oparitu egin zizuten? Erosi egin zenuen?).

- Zer irudi gustatu zaizkizu gehien? Zergatik?

- Zer testu gustatu zaizkizu gehien? Zergatik?

6

Orain, asmatu nori eman behar dizkiozun eskerrak Emoziotegiagatik, eta idatzi.

- Nork idatzi zuen? _____

- Nork egin zituen gehien gustatu zaizkizun irudiak? _____

- Nork argitaratu zuen? _____

- Nork lortu zizun? _____

7 Saiatu *Esker onaren egunerokoaren* orri bat osatzen. Idatzi honako hau.

● Data:

● Gaur sentitu dituzun hiru emozio, eta zer egoeratan sentitu dituzun:

1. _____

2. _____

3. _____

● Esker ona sentitzeko hiru arrazoi:

1. _____

2. _____

3. _____

8

Idatzi zer dagoen zure Jauregi Zoriontsuan, eta marraztu.

